



Defendatzaileen Buletina

Iraila 2021



Aurkibidea

Aurkezpena	3
Bizitzaren Aldeko Bira	4
Elkarrizketa: Sabina Velasco	5
Bizitzaren Aldeko Bira, zergatik hain beharrezkoa?	9
Euskal Herriko sareak indartzen	11
Bizkaian eta Gipuzkoan burututako jarduerak	11
Musika lurraldearen defentsarako tresna gisa	13
Agenda	14
Zer gertatzen ari da Erdialdeko Amerikan?	15
TE´MEKE (Jaia)	16



Aurkezpena

Irakurle maitea,

#OihartzunTalka kanpainaren bigarren buletina aurkezten dizugu. Gure lurraldeak hurbiltzeko eta sistema kapitalista heteropatriarkalaren aurkako borrokak batzeko helburuarekin Lumaltik Herriak erakundetik ilusio handiz bultzatu dugun kanpaina, hain zuzen.

Euskal Herritik, bozgorailu gisa jardun nahi dugu, elkar ezagutzeko eta, batez ere, Erdialdeko Amerikako gorputz eta lurraldeen defendatzaileek bizi duten errealitateaz sentsibilizatzeko. Horretarako, euskal biztanleekin elkarrizketarako eta hausnarketarako guneak sortzea da gure nahia.


Lehen buletina galdu bazenuen, gogorarazten dizugu #OihartzunTalka 2021eko udaberrian kaleratu zela, Erdialdeko Amerikako emakumeek bultzatutako bizitzaren eta lurraldearen defentsa-prozesuetan jasandako egoeren aurrean ahotsa altxatzeko helburu tinkoarekin.

Komunitatearen defendatzaile izateak dakarren egoerak salatu nahi ditugu, haiek burututako ekintzak sistema kapitalista estraktibista eta patriarkalaren aurka duten eragina gurera ekarriz. Sistema honek maila globalean inposatzen da eta sistematikoki bortxatzen gaitu uneoro. Hau da, salaketa-kanpaina bat sustatu dugu, gogoeta egiteko eta zaintza eta autodefentsa-ekintzak bideratzeko.

Buletin honetan feminismoei, zainketei, gure gorputzen defentsari eta ingurumenari buruzko artikuluko interesgarriak aurkituko dituzu.

Halaber, Zapatisten Bizitzaren Aldeko Birari buruzko lehen eskuko informazioa Europan zehar egindako bisitan, Erdialdeko Amerikako defentsari komunitarioei buruzko azken berriak, Lumaltik Herriak erakundeak azken hilabeteetan burututako jardueren bilduma eta etortzear daudenak... eta hainbat sorpresa gehiago ere!

Edozein zalantza edo iruzkin egin nahi badiguzu, idatz iezaguzu hezkontza@lumaltik.org helbide elektronikora edo jar zaitez gurekin harremanetan gure sare sozialen bidez.
Aurrera!



Bizitzaren Aldeko Bira

2020 arraro honi amaiera emateko, 27 urtetan lehen aldiz bira bat egingo zutela iragarri zuten zapatistak, bost kontinenteak ezagutzeko helburuarekin eta Europatik hasita.

Gauzak horrela, 160 pertsonaz osatutako Ordezkaritza Zapatista, gehienak emakumeak izanda, eta Morelos, Puebla eta Tlaxcalako Lurra eta Uraren Defentsarako Frontearekin (FPDTAMPT) eta Indigenen Kongresu Nazionalaren (CNI) ordezkaritzarekin batera, uda honetan Europako lurraldeetan zehar bidaiatuko dira.

Elkar ezagutzea, hitz egitea eta ideiak eta esperientziak kolektibizatzea izango da helburu nagusia. Horretarako, antikapalistekin, feministekin, antiarrazistekin, dekolonialekin, ekologistekin etab elkarte eta erakunde ezberdinekin bilduko dira, beste bizimodu baten alde lan egiten dugun kolektibo eta mugimendu sozial desberdinekin, alegia. Hau da, Bizitzaren Alde borrokatzen dugun guztiekin.



Birazapatista



Elkarrizketa: Sabina Velasco

Bira Zapatistaren kidea eta Euskal Herriko Bizitzaren Aldeko Biraren koordinatzailea.

Norbaitek oraindik ezagutzen ez baditu, nortzuk dira zapatistak?

Oso lan konplexua da nor edo zer diren laburbiltzea. Gaur egun, Mexikoko eta mugimendu sozial esanguratsuen eta Erdialdeko Amerikako mugimendu indigenarik garrantzitsuenetakoa dela esango nuke. Mugimendu Zapatista 70eko edo 80ko hamarkadan sortu zen, baina 90eko hamarkadan altxatu zen, 1994. urtean zehazki.

Chiapasko lurraldean daude kokatuta, Mexikoko hegoaldean. Mugimendu armatu gisa hasi zen, antolatzen eta batzen joan ziren klandestinitatean Ejército Zapatista de Liberación Nacional (EZLN) sortu arte. Enfrentamendu armatuak egun gutxi iraun bazituen ere, komunitate indigenek Chiapasen bizi zuten bidegabekeriaren kontzientzia hedatzen joan zen eta, ondoren, Komunitate Autonomoak sortu zituzten.

Mugimendua komunitate indigenen kontrako diskriminazio eta arrazakeria historikotik sortzen da. Mugimenduak hiru hamarkada daramatza jada autonomia eta kultura indigenen eskubideen alde borrokatzen.

Zer da Bizitzaren Aldeko Bira eta nola sortzen da?

Ez dakit zehazki nola sortu zen ideia, abisatu besterik ez ziguten egin. Garai batean, zapatistek ez zieten irteten uzten eta oihanean ezkutatuta egon ziren denbora luzez, atxilotze aginduen ihesean. Urteak pasata, egoera lasaitzen joan zen eta

Mexikon “Lurraren Kolorearen Martxa” egin zuten. Geroago, beste kanpaina bat egin zuten Mexiko osoan zehar mugitzeko, beste herri batzuetako testuinguruak ezagutzeko. Nire ustez, bira hau oso antzekoa da, baina modu globalagoan. Bira Europatik hasiko da, baina asmoa kontinente bakoitzera joatea da, konturatu baitira euren borroka ez dela bakarra. Zapatistentzat borroka indigena ardatz nagusia bada ere, testuinguru oso zabal baten barruan kokatzen da.

Gainera, Chiapasera eta Zapatisten eskualdera doan edonork mundu osoko jendea aurkitzen du, oso mugimendu ezaguna delako mundu mailan eta, nik uste, jende hori guztia nondik datorren jakiteko gogoia ere bazutela. Europatik jasotzen dute jende gehien eta mugitzeko erraztasuna ere izan dezakete hemen, horregatik esango nuke hemendik hastea aukeratu dutela.

Albistea kaleratu zenetik hona, nola joan da antolatzen bira hori?

Hasiera-hasieratik, mugimendu zapatistatik miresgarria den zerbait haien ahalmen sortzaile eta berritzaile izan da beti. Nahiz eta beti EZLNa izan, armadek duten seriotasun eta solemnitaterekin, aldi berean ere gai kulturalaz jantzi dituzte euren borroka eta aldarrikapenak, dibertigarriagoak bilakatuz nolabait esateko. Kontraesan hori Mexikoko kulturatik hartuta zerbait dela esango nuke, eta, oro har, latinoena ere. “Gure iraultza, dantzan egiten izango da” Argentinako eta Txileko feministek dioten bezala, hori da oinarria nire ustez. Horrelako topaketak beti egin izan dituzte: galaxiarako topaketa, zinema topaketa... horietako bat Bizitzaren Aldeko Bira dugu, eta helburua beste kontinente batzuekin partekatzea izango da.



Ez dago denbora zehatzik, zapatistak beren erritmoan daramate. Beti esan izan dute 500 urte daramatzatela erresistentzian, denboraren pertzepzioa gurearen oso bestelakoa dela. Ibilian egongo dira eta mundu osoan erresistentzian dauden beste herri batzuekin topo egingo dute, datarik gabe, presarik gabe... hori da ideia, borroka partekatzea.

Zer dela eta orain, 27 urte igarota, jarri da abian bira hau European zehar?

Ezin izango nuke zergatia azaltzea, ez digutelako zehazki azaldu batez ere, baina teoria bat baino gehiago bai badagoela hortik. Aurten, 500 urte bete dira Tenochtitlan hiria erori zenetik. Sinboloekin jolastu izan dute beti, eta hori oso miresgarria da. Nire kasuan, asko gustatzen zaidan zerbait da hori, bizitza ere horrelakoa dela uste dudalako. Horrek zerikusi handia du herri indigena baten identitatearekin, espiritualtasunarekin, erritual askorekin...

Bizitzaren Aldeko Bira beste Europa ezagutzeko bisita ere bada, eta horretarako izen esanguratsuak eman nahi izan diote: Adostutako inbasioa, Konkista Alderantziz... konkistaren kontzeptuari bira eman diote.

“Ez gaituzte konkistatu, hemen gaudelako oraindik ere”. Ezerk ez ditu geldiarazten, ez pandemia ez eta gainerako gorabehera guztiak ere. Oso garrantzitsua da, oso sinbolikoa gainera, Europara ez ezik, Espainiara ere etortzea. Azkenean, sinboloek zentzua eta indarra ematen diote diskurtso bati, ez dira diskurtso soilak, adierazpen ikaragarriak dira eta gaitasun poetiko eta literario zoragarria dute-nak baizik.

Diskurtso horiek irakurtzen dituzunean, ez dira fantasia hutsa, bizitza propioa dute. Gainera, itsasontziz datoz, eta Europa birkonkistatzen dute, eta Espainiara datoz, eta hiriburua hartu nahi dute... oso sinbolo indartsuak dira, kultura sortzeko ahalmena dutenak.

Zein da bira honen helburu nagusia?

Kontinente ezberdinetan aurrera eramaten ari diren borroka desberdinekin topo egitea. Gai komunak zeintzuk diren antzematea, dauden desberdintasunak ezagutzea... bidaia ez dute proposatu zapatismoa ezagutzeko gonbidapen gisa, baizik eta bizitzaren alde borrokatzeko gonbidapen gisa.

Esparru guztietan suntsitzen ari da, kontinente guztietan, eta herri indigenek duten gauza bakarra da. Gure ilusioa zapatistekin topo egitea da, baina biraren helburu nagusia borrokan ari diren pertsona guztiak berriro elkartzea da, bestelako mundu bat nahi dugunak.

Helburu hori betetzen ari gara, elkar ezagutzen ari garelako, zerbait desberdina nahi dugun eta nahi duten pertsonekin batzen ari gara. Bakoitza gauden tokitik bada ere. Nire kasuan, esaterako, jende berria ezagutzen ari naiz Donostian, ezagutzen ez nuen euskal jendea, eta denok oso desberdinak gara gure artean, baina gauzak aldatzeko ilusio berarekin aldi berean. Kasu horretan, bira hasia da jada.

Bestalde, itxaropena pizten ari da. 6 hilabete daramatzaguz antolatze lanetan. Pandemiagatik zaila izaten ari den arren, unea egokia izan da; izan ere, sozialki etsipen handiko une batean bizi ginen mundu mailan, pandemiak dena estali du nolabait, eta horrekin, harrera egiten ari garenontzat behintzat, mundua aldatzeko itxaropena ere itzuli da. Inoiz baino gehiago behar dugun mezua da.

Biraren zein puntutan zaudete une honetan?

Hainbat fasetan gaude momentu honetan. Alde batetik, hemen gaudenok berrantolatzeko prozesuan gaude. Herrialde eta lurralde desberdinetan lanean ari gara, agendak eginez, ibilbidea zein izango den, zer proiektu dauden, zer gonbidapen dauden eta abar zehaztuz.



Baina une konkretu honetan, zain gaude; sartzen uzteko zain eta irteten uzteko zain.

167 pertsona inguru etorri nahi zutela iragarri zuten. 100 inguruk pasaporteak zuten jada, baina Mexikok oztopo ugari jarri zituen hauek eskuratzeko. Bestalde, Europako gobernuak ere onartu beharko dituzte.

Dena prest zegoen Parisera iritsi zitezela, baina Frantziako gobernuak itxi egin ditu mugak pandemiagatik, murrizketak direla eta. Ez dago jakiterik erabaki politikoa den edo osasun gaitetara soilik mugatzen den, baina momentu honetan oso zaila aurreikusten dugu sartzen uztea.

Nola ari da prestatzen harrera hori Euskal Herriko?

Mugimendu handia izan dugu, egia esanda. Euskal Herri mailan, Chiapasekin lan egiten zuten kolektiboek ezberdinen arteko koordinazioa egin zen eta parte hartu nahi zuen edozein pertsona edo kolektibori ere zabaldu zen deialdia. Parte-hartzea oso anitza izan da, edonor sar daiteke eta denok dira ongi etorriak.

Jendea batzen joan zen eta probintziak banatzea erabaki genuen, baina horrek ez du esan nahi baikoitzak bere aldetik lan egiten zuenik. Izan ere, astero Euskal Herri mailako batzarrak ditugu, nola goazen aztertzeko edota zer laguntza beharrezkoa diren jakiteko.

Baina jarduerak, egutegiak edo gauza zehatzagoak antolatzea probintzia mailan eramaten ari dira, errazagoa eta egokiagoa delako gure ustez, tokian-tokiko aktibismoa errazago egin daitekeelako beti.

Europako kolektiboek kasuan, ez dugu inolako erabakirik hartzen. Zapatistek hartzen dituzte erabaki guztiak, proposamenak bidaltzen zaizkie bai,

baina euren erabakitzen dute. Euskal Herrian leku guztietara gonbidatu nahi izan genien, baina errealistak izanda, 3 hilabete baino ez datoz eta Europa osoan egongo dira, ezin gara hain berekoiak izan eta uneoro gurekin izango direla pentsatuz, mundu guztiak ikusi nahi ditu.

Bi ekitaldi handi antolatu ditugu, guztiak bertan egoteko aukera izan dezaten, baina gainerakoak talde txikietan egingo dira, gonbidatu zaizkien herrietara joanda. Hori da gure proposamena, ontzat hartzen badute ederto, bestela haien egoerara egokituko bagara arazorik gabe.

Euskal Herriko koordinazio taldeak, ekitaldiak eta jarduerak antolatzen hasi zarete jada?

Euskal Herriko koordinatortik, "Bira Zapatista" izenpean, gauzak egiten daramatzagu asteak, jendea animatzeko eta ezagutu dezaten. Informazio mahaiak jartzen ari dira herrietan, baita materiala saltzen ere, hori guztia finantzatu egin behar baita. Horretarako, adibidez, mahai joko bat sortu dugu, kamisetak, poltsak, katiluak, takoak... gure eskura dagoen guztia egiten ari gara finantziarioa lortzeko. Bere herrian edo hirian mahai bat jarri nahi duena laguntzeko guztiz prest gaude.

Biraren helburua borroka ezberdinak elkartzea denez, Euskal Herria igarobide edo pasabide horren erdian dagoela esan genezake. Vigon izan zirenean, orain La ZADen (Nantes), jende ugari mugitzen ari da haiekin batera eta topaketa horien bila dabil. Adibidez, meatzaritzaren aurkako erresistentzian lan egiten duen Portugalgo talde baten hitzaldiak ditugu astearte honetan hemen.

Gauza bera gertatu da beste talde batzuekin, Alemania edo Iraneko taldeekin esaterako. Horregatik, lehen esan bezala, gure ilusioa Zapatistak ikustea bada ere, beste pertsona eta elkarte batzuekin topo egitean datza bira hau. Eta hori lortzen ari gara.



Nola lor dezakegu informazio gehiago eta nola lagundu genezake?

Modu askotan lagundu daiteke, lan handia dago oraindik egiteko. Denbora askorik ez baduzu, materiala erosten lagun dezakezu. Orain, bisitak sorrazten dituen gastuak murriztu nahi ditugunez, elikagaiak biltzeko kanpaina batekin hasiko gara, hainbat herritan egingo dena, karabana datorren-erako.

Gogo handia eta denbora duenarentzat, batzordeak daude. Osasun-batzordea dago, beste bat antipatriarkala, eta orain oso garrantzitsua den antikoloniala ere sortu dugu. Bira Zapatistatik oso kontuan hartzen ari gara antikolonialismoaren gaia, Euskal Herriko kolektibo asko ari gara lanean bertan.

Migratzaile talde desberdinekin ere lanean ari gara, nire kasuan bezala adibidez mexikarra bainaiz, konturatu baikara arrazakeria ardatz nagusienetako bat dela bira honetarako. Proposamen eta jarduera asko egiten ari dira, konturatu garelako hemen ere oraindik asko dagoela ikasteko, ez dagoelako ezer landuta eta han, ordea, bai, zapaldutako taldeek beti egingo dutelako hausnarketarik sakonena.

Euskal Herrian egiten dugun lana ezagutzeko, La Bira Zapatista dugu, sare sozial guztietan ikusgai dagoena (Instagram, Facebook, Twitter). Bestalde, "Enlace Zapatista" ere badago, EZLNren komunikazio guztiak bertan daude. Beste leku bat ere sortu zen, "Viaje Zapatista", Europa mailan egiten ari denaren jarraipena egiteko. Maila handiko jendea dago, eta gauza asko egiten ari dira etengabe.



Bizitzaren Aldeko Bira, zergatik hain beharrezkoa?

(SupGaleano, 2021eko ekaina)

La Travesía Por La Vida ¿A qué vamos? "Extracto del comunicado Zapatista"

"¿Es el zapatismo una gran respuesta, una más, a los problemas del mundo?"

No. El zapatismo es un montón de preguntas. Y la más pequeña puede ser la más inquietante: ¿Y tú qué?"

Frente a la catástrofe capitalista, ¿el zapatismo propone un viejo-nuevo sistema social idílico, y con él repetir las imposiciones de hegemonías y homogeneidades ahora "buenas"?"



No. Nuestro pensamiento es pequeño como nosotros: son los esfuerzos de cada quien, en su geografía, según su calendario y modo, que permitirán, tal vez, liquidar al criminal, y, simultáneamente, rehacer todo. Y todo es todo.


Cada quien, según su calendario, su geografía, su modo, habrá de construir su camino. Y, al igual que nosotros, los pueblos zapatistas, irá tropezando y levantándose, y lo que construya tendrá el nombre que le dé la gana tener.

Y sólo será diferente y mejor que lo que hemos padecido antes, y lo que padecemos actualmente, si reconoce lo otro y lo respeta, si renuncia a imponer su pensamiento sobre lo diferente, y si al fin se da cuenta de que muchos son los mundos y que su riqueza nace y brilla en su diferencia.



¿Es posible? No lo sabemos. Pero sí sabemos que, para averiguarlo, hay que luchar por la Vida.

Entonces, ¿a qué vamos en esta Travesía por la Vida si no aspiramos a dictar caminos, rutas, destinos? ¿A qué, si no buscamos adherentes, votos, likes? ¿A qué, si no vamos a juzgar y a condenar o absolver?"



¿A qué, si no llamamos al fanatismo por un nuevo-viejo credo? ¿A qué, si no buscamos pasar a la Historia y ocupar un nicho en el panteón enmohecido del espectro político?

Bueno, para serles sinceros como zapatistas que somos: no sólo vamos confrontar nuestros análisis y conclusiones con lo otro que lucha y piensa críticamente.

Vamos a agradecer a lo otro su existencia. A agradecer las enseñanzas que su rebeldía y su resistencia nos han regalado. A entregar la flor prometida.

A abrazar lo otro y decirle al oído que no está sola, soa, solo. A susurrarle que valen la pena la resistencia, la lucha, el dolor por quienes ya no están, la rabia de que esté impune el criminal, el sueño de un mundo no perfecto, pero sí mejor: un mundo sin miedo.

Y también, y sobre todo, vamos a buscar complicidades... por la vida."

(SupGaleano. Junio del 2021)



Euskal Herriko sareak indartzen

Pandemiak oztopoak jarri badizkigu ere, murrizketak eta distantzia sozialaren gorabeherak direla medio, 2021ak aukera eskaini digu berriro ere elkar ikusteko eta espazioak partekatzen. Jardueraz betetako hilabeteak izan dira honakoak Donostian, Mutrikun, Basaurin, Deban, Artea... galdutako denbora berreskuratzea erabaki genuen, eta ez gara gelditu!

Jarduerak lurraldeka (Bizkaia eta Gipuzkoa)


Bizkaia

Zainketarako denbora (Basauri): Migratutako emakume feministen taldeen sentipen-jakituria prozesuak ezagutu genituen

Gure gorputzak eta sexualitateak (ber)ezagutzen (Basauri): Identitate eta orientazio sexualen inguruko estereotipoak eta aurreiritziak identifikatu genituen, bai eta horiek Erdialdeko Amerikan eta Euskal Herrian giza eskubideen uraketetan duten inplikazioa ere.

Sentimenak eta Sexualitateak (Artea): Emakume migratuen eta Euskal Herriko kolektibo feministen arteko auto-zainketa eta elkar laguntzeko prestakuntza-prozesua

Elkartrukea "Jakituria Haziak Ereiten" (Artea): Euskal Herriko talde feministen arteko ikaskuntza-trukea, elkarren arteko ezagutzak, aliantzak eta talde lana sustatzeko.



Gipuzkoa

Rap feminista tailerrak (Deba eta Oñati): Deba eta Oñatiko kolektibo feministekin burututako tailerra, Rebeca Lane eta La Furiaren eskutik. “Te toca escucharme” eta “Gorputz Lurralde” abestien sorrera izan zen hauen emaitza.

Kolektibo feministen arteko elkartrukea (Oñati): Musika Euskal Herriko talde feministen arteko sare lana eta hizketa sustatzeko tresna gisa.

Defendatzaileen eta Donostiako mugimendu sozialen arteko topagunea (Donostia): Donostiako gizarte eta Dalila Argueta, Guapinoleko ingurumen aktibista (Honduras), eta Reyna Tercero Nikaraguako aktibista feministaren arteko elkar-riketa.

“Feminismoa lurraldearen defentsarako arma gisa” (Donostia): Donostiako Emakumeen Etxean burututako tailerra, 4 saiotan banatuta. Zainketa eta Ongi Bizitzea, arrazakeria, lurraldearen defentsa eta sexu- eta ugalketa-eskubideak joratu genituen, besteak beste.

“Erdialdeko Amerikako Defendatzaileak” erakusketa (Donostia): Donostiako hainbat espaziotan zehar banatutako erakusketa, Erdialdeko Amerikako lurraldearen eta bizitzaren aldeko defendatzaileen errealitateak ikusarazteko.

“Feminismo lurraldearen defentsarako arma gisa” bideoforuma (Donostia): Donostiako hainbat kultur etxetan egindako zine-eztabaida zikloa, defendatzaileen eta euskal gizartearen arteko elkarriketa eta ideia-trukea sustatzeko.

Lurraldearen defentsaren inguruko tailerrak (Mutriku): “Mutriku BHIko” ikasleekin egindako tailerrak, biztanle gazteengan kontzientzia sortzeko.



Musika lurraldearen defentsarako

Azken hilabeteetan aurrera eraman ahal izan genuen proiektu interesgarrienetako bat "Lurraldearen Defentsarako Rap Feminista tailerra" izan zen. Egoera ikusita, prozesuaren atal bat online egin behar izan genuen, baina horrek ez zuen eragotzi gure artean sortu zen hurbiltasuna eta Debako eta Oñatiko talde feministen artean egindako elkarlana. Eta gu geu ere animatu ginen azkenean parte hartzera!

Gauzak horrela, Rebeca Lane-en rap abeslariarekin Guatemalatik bertatik eta La Furiarekin batera, proiektu eder eta zoragarri bat hasi genuen. Bertan, gorputzaren eta lurraldearen defentsari buruzko hausnarketa kolektiboa sustatu genituen bitartean, hip-hop, musika-konposizio eta metrikaren historiari buruz ere ikasi genuen. Azkenik, grabazio-talde profesional baten aurrean lehen aldiz abestera ausartu ginen, eta baita kameraren aurrean dantzatzu ahaldu egin ere.

Saio horien azken emaitza, rap feminista eta lurraldearen defentsa ardatz nagusia zuten bi abestiren sorrera izan zen: TE TOCA ESCUCHARME eta GORPUTZ LURRALDE. Gainera, prozesu osoa bi fanzinetan islatu nahi izan genuen; bat Deban eta bestea Oñatin, esperientzia eder hau ahaztu ez zedin. Dena ikusgai duzue gure web orrian, nahi duzuen guztietan entzun, abestu eta dantzatu ahal izan dezazuen!



Agenda

Erdialdeko Amerikako defendatzaileen nazioarteko jardunaldia

Donostian, El Salvador, Guatemala eta Honduraseko erakunde eta mugimendu sozialen 4 ordezkariarekin topagunea antolatuko dugu. Euren lana migrazio-prozesuei, feminismoari, lurraldearen defentsari eta komunikazio komunitarioari lotuta dago.

Espazioak partekatzeko, bertako testuinguruak eza-gutzeko, zuen zalantza guztiak plazaratzeko eta Erdialdeko Amerikako defendatzaileen errealitateaz hausnartzeko aukera izango duen gunea irekia izango da.

Zuen zain izango gara datorren irailaren 22an Donostiako Okendo Kultur Etxean.

Erakusketa. Irailean Donostian, Urrian Hernanin, Azaroan Oñatin

Erakusketa honen helburua Erdialdeko Amerikako defendatzaileen eta haien kolektibo, erakunde eta komunitateen lana aintzatestea da, horretarako argazki eta ilustrazio bildumak hurbildu nahi dizkiegu euskal biztanleei.

Ekintzaileak, ikasleak, abokatuak, irakasleak, nekazariak... egunero pairatzen dituzten indarkerien aurrean, euren lurraldeak eta gorputzak defendatzeko antolatzen diren emakumeak dira.

Defendatzaile gisa egiten duten lanaren estigmatizazioa ezagutuko dugu, baina haien baita erresilientzia-prozesuak, ametsak eta grinak ere, azken hauek baitira mundu justuago baten alde borrokatzen jarraitzea bultzatzen dituen motorra, alegia.

Erakusketa ikusgai izango duzue irailaren 30era arte Donostiako Okendo Kultur Etxean, baina laster argitaratuko ditugu data eta espazio berriak.

Adi egon gure sare sozialetara!



Zer gertatzen ari da Erdialdeko Amerikan?

Garifuna herriaren aurkako jazarpena Hondurasen Garifuna herriak, jatorri afrikarra eta XVIII. mendetik Hondurasen dagoena, etengabeko borrokan eta erresistentzian jarraitzen du lurraldeak kentzearen aurka, eta hori dela eta, sistematikoki kriminalizatuak eta jazarriak dira.

Urtebete baino gehiago igaro da Milton Joel Martínez, Suami Aparicio Mejía, Albert Santana Thomas, Gerardo Misael Trochez eta Albert Snieder Centeno (Triunfo de la Cruz patronatuko presidentea) arrastorik utzi gabe desagertu zirenetik, ikerketa-polizia uniformeeekin jantzitako pertsonen euren etxeetatik bortizki eraman ondoren.

Organización Fraternal Negra Hondureña (Ofraneh) erakundeak ohar bat argitaratu zuen uztailean, SUNLA bilaketa eta ikerketa batzordearen sorrera jakinarazteko eta nazioarteko laguntza eskatzeko gertakariak argitzeko helburuarekin.

David Castillo erruduntzat jo dute Berta Cáceresen erailketagatik

Joan den uztailean, 45 eguneko audientzia saioa eta Cáceres familiak 62 frogak aurkeztu ondoren, epaiketa egin zen. Bertan, David Castillo, DESA S.A konpainiako zuzendaria, 2016an Berta Cáceres lider indigena, feminista eta lurraldearen defendatzailearen hilketaren egile intelektualtzat hartu zen eta errudun jo ere. Berta, gau eta egunez borrokatu zen Honduraseko Gualcarque ibaian presa hidroelektriko bat eraikitzearen aurka.

Proiektu hau, Castilloren enpresarena zena, ingurumen eta gizarte ondorio larriak eragingo zituen ibaitik bizi diren komunitateengan, lur eta espazio

sakratuak uztera behartuz. Horrela, 7 urteko etengabeko borroka eta salaketen ondoren, proiektuaren arduradunaren aurka justizia egitea lortu zen, eta hiltzaileekin batera sartuko da kartzelan. Azken hauek 2018. urtean kondenatuak izan ziren.

Kanporatze behartuak Chiapaseko Chenaló eta Pantelhó komunitateetan.

Chenaló udalerrira obserbazio misio bidali ondoren (Chiapas, Mexiko), Fray Bartolomé de las Casas Giza Eskubideen Zentroak (Frayba), Suitzako Munduko Medikuek edo DESMI (Desarrollo Económico y Social De Los Mexicanos Indígenas), nazioarteko beste hainbat erakundeekin batera, muturreko indarkeria egoera eman dela salatu dute.

Pantelhó eta Chenalhó inguruan bizi diren komunitateak izan dira muturreko bortizkeria hori jasan dutenak, batik bat. Txostenean jasotako datuen arabera, orain arte 3205 pertsonen lekualdatze behartuak eragin ditu, eta azken hiru hilabeteetan 12 pertsona erailak izan dira eta pertsona bat desagertuta jarraitzen du gaur arte.

Abortuaren despenalizazioa Veracruz

Veracruzeko Estatua (Mexiko) zorionekoa dugu gaurkoan! Aurreko uztailaren 20an, Zigor Kodearen erreforma onartu zen, haurdunaldiaren lehen 12 asteetako etenaldia despenalizatuz, eta sei hilabetetik lau urte bitarteko kartzela zigorra eta 50 egun arteko soldata eza ezartzen zuen artikulua indargabetzen duena, orain arte indarrean zegoena. Gauzak horrela, Veracruz emakumeen sexu eta ugalketa askatasun eskubideak aitortzen dituen Mexikoko laugarren estatuan bilakatzen da.



TE' MEKE' (El Festín)

TE' MEKE'

Te' papinyomo ji' nhkiäntzä'yoyepä'is
syi'nawajku nhwyt'

tese' nhki'omusku'päjki'aju sone' tzame'ram
jiksekanhte myatyajupä te' mä'ä'pät tesorike te'
tuj'pät,

kora'ayajpa'na' myanyaju'ankä yom'ntzame'ram
sutu' nyujkya'ä te' tzame'ram

wäkä' yajk' wyruyaä jojpajk'omoram,

tzajp'omoram,

matza'omoram,

kotzäjk'omoram,

tzu'omoram tesorike jama'omoram

tese' myti'aju äjn ntzätzä' tzeke'ram

äj' ntzätzä' tompijtz'tam
teis'tam nyetyaju kyowa'ram, syusku'tyam
jiksekante te' sawa'pät te' mä'ä'pät
poksyaju wäkä' nkiämanäya'ä

te' sasapyä' wane' pujtupä jiksekpä' tzayi'omo.

EL FESTÍN

La muchacha subversiva que soy

rompió las amarras

y cayó con furia sobre cada palabra prohibida.

Entonces vinieron los dioses del trueno y de la
lluvia

alegando la imprudencia de lo femenino,

quisieron capturar las palabras

y regresarlas de nuevo a los ríos

a los cielos

a las estrellas

a los volcanes

a la noche y al día

pero vinieron también las hermanas tortugas

y las hermanas tuzas

con sus instrumentos de percusión y de viento,

entonces los dioses de la lluvia y el trueno

se sentaron a escuchar

la hermosa sonata que salió aquella tarde.

(Mikeas Sánchez. Activista y poeta chiapaneca)



Bea Aparicioaren azaleko irudia.
Argazkiak lumaltik.
Cristina plazaren idazkera.
Diseinua eta diseinua karinen eskutik.

